# LEKOBIDE

AŔIAGA'TAŔ EMIL̄EN

TV
178

H- 1747
R- 33.738

ATV
15.97

AŔIAGA'TAŔ EMILEN

# LEKOBIDE

BIGAŔEN IRAŔKALDIJA

1918
Grijelmo'ren Alaŕgun-Semien iraŕkolean.
Aŕbolantxa, 1
ABANDO

Jaubia dau.—Jaubiaren axubaz.

## UAṘA

*Bigaṙen iraṙkaldi au gertu da lenengokuan aldakuntza andirik egiḻeka: eresalduteko gertu zan; eta lenengo eleskija eresalduta dago: augaṫik geure aṙilan zabaldu dan zutanoz-iḻanozkereaz dago, zutanoz-iḻanozkera oṙiek euzkeldunak zuzendu biaṙ doguzala uste dodanaṙen.*

*Idazkunaz ostian imiñi dira itz baṙijak ala atzalgaṙijak.*

Aṙiandiaga'tar Imanol M. B. S. euzkeraltzaña.

# LEKOBIDE

## Euzko-eleski oresidun asele irukotxa

(IṘNIO'ko eṙi-askitzaz.)

AṘIAGA'TAṘ EMIL̄EN'en idazkuna.

ISASI'T̄AṘ ANDER'en eresalguna.

# LEKOBIDE

## Euzko-eleski oresidun asele irukotxa

---

I

### ILBETEKO JAYA

---

II

### GUDAKA NAUSIJA

---

III

### BURU-ESKAÑA

---

## ANTZEZNOTIÑAK

LEKOBIDE . . . —Eun urtedun agurea, urtiak-aŕen gixon -giñaŕija, oldaŕ-eŕutsuba. Euzkotaŕen buru -nausija. *(Abesperen.)*

ONINTZE. . . . —Lekobide'ren iloba edo alabasua, neskatila edeŕa baño edeŕagua, bijotz-andi, kopeta ugaritsu bilan bananduriko ule-goŕi, amazoŕtzi urteduna. *(Abeskoren.)*

LAŔTAUN . . . —Euzkotaŕen buruzagi eŕutsu ta zeŕdena, ogetabost urteduna *(Abetzoli.)*

USUNE . . . . —Laŕtaun maŕe daun neskatila erua, ule -baltza ta lasaya, ogetairu urteduna. *(Abeskoŕi.)*

OTSOAL . . . . —Euzkotaŕen guda-buru zaŕ ta itxaltsuba, beŕogetamaŕ urteduna. *(Abespeŕi.)*

OLEŔKARI . . . —Mendi-kobalkari eŕilaŕa. *(Abespeŕi.)*

TALDIAK . . . Eŕki-Buru-Batzaŕa dagijen Agureak.
Gudari euzkotaŕak Iŕnio mendijan jaŕijak.
Mendijan zaindu diranen sendijetako emakume, neskatila ta mutiko-neskatuak.

---

## ALDIJA

Roma'ren agintzaldijan, agimenduna Octavius Augustus zala.

Kistaŕdiko lenengo eungijan, eta Josu-Kisto'tik asita zoŕtzigaŕen urtian.

## LENENGO ELESKIJA

*(Argi zuri-urdinḏun margodurea)*

# ILBETEKO JAYA

*Antzeznotiñak:*

LEKOBIDE
ONINTZE,
LAŔTAUN
USUNE
OLEŔKARIJA
TALDIAK

## ANTZEZTOKIJA

Iŕnio * mendi andija, egijan landa zabala, oñian Aŕaxil ** arana, Gipuzkoa'n.

Agura-atso, emakume, neskatila ta mutiko-neskatuak txabolaetatik urteten, dagokijen zori ilunaz alaka.

Aŕatsaldia da.

Etxera datoŕtzan gudari euzkotaŕak beŕik antzeztokiragiño digoz. Antzeztoki-eskumaldian *Gurutzeta* oña, gudari atzitubak cŕomataŕak untzau eta erailtzen ebezan gurutzak daukazala.

Bedaŕtza luzian mutiko-neskatuak ijutika.

Antzeztoki-euna jasoten dabelarik iḻun-nabaŕa asten da, ta azkenez gaba Ḻargi bete izpitsubak argi-argi dimin: Ḻargija ilḏen da antzeztoki-euna beratu-auŕekoxe.

* Bai-deretxa be *Heŕnio* ala *Hiŕnio*. Itxaso-azaletik gora anei eta irurogei neuŕkin daukaz.

** Gauŕ *Rejil* ala *Rexil* deretxa.

## LENENGO ANTZEṘKIJA

TALDIAK: *Agura, emakume, neskatil̄a ta mutiko-neskatuak*

---

AGUREAK *(gustijak)*—¡Au alegia! ¡Au, bai, ir̄una! ¡geure alboko gustija! ¡geure begijak dakusena! ¡geure goguak aditzen dauna!...

*(Euretariko batek).*—Urola*'ko ur garbi bariak axe-bunbada gogor̄ak goi-ber̄u ta lor̄uten dauzan lez, erijotza ta sakal̄a euzko-mendijetan guda uzu anker̄ak bere puzkada ustelaz zabaltzen dauz be...

*(Gustijak).*—¡Au alegia! ¡Au, bai, ir̄una! ¡geure alboko gustija! ¡geure begijak dakusena! ¡geure goguak aditzen dauna!...

*(Euretariko batek).*—¡Tor̄iak eratsirik! ¡Txabolak sutaurik! ¡Etxiak utsik! ¡Bai, ziñez! Bai-da euzkotar̄en gaur̄ko zorija euzkotar̄a eztan edonor adorekatzeko zorija.

---

* Zumaya'n iztabua daukan Gipuzkoa'ko ibaya.

*(Gustijak.)*—Au ta be, baña, bai derizkiagu burubaren jaube Iŕnio .andiren gal̄uŕetan odayen aŕtian, geu legez, bixi danari, aŕano azkaŕ azaŕijak bakaŕik, abijak egiteko egazka gauŕaŕte igon diran gane-gal̄uŕetan.

EMAKUMIAK . . —Baña euzkotaŕa il̄un eta gogait dago, bere begijak dakusela eŕomataŕak zabalduta daruan jaube-ikuŕiña; eta an, uŕun, eŕomataŕ beroŕen ixontzidiko oyal zurijak uŕetan zibuka, itxasuso artega ta goseti -taldiaren antzez, ikustiak aseŕe dimin.

*(Neskatil̄a-talde batek.)*—Bai-dagoz il̄un neskatil̄eak be, eztabelako entzuten oinka alaira dei-egin daruatsen txistu zaŕa, * eztabezalako gudarijen espanetatik adil̄uten bijotzai santzo-eragil̄en eutsezan abesti mal̄ekoŕak.

*(Neskatil̄a-beste talde batek.)*—Guda-iŕintz ** ixukoŕa bakaŕik, ala Gurutzeta oin uŕetxuban gurutzaldutako nebaen negaŕ-eresijak bakaŕik Ituŕiotz eta Aŕaxil'go durundijak beŕesaten dabez.

*(Emakumiak eta neskatil̄eak.)*—Ala-gogua jesaŕi da euzko-etxietan; bijotzan miñaren atza-bakorik geure aŕtian eztago; edo al̄a, edo nebea, edo senaŕa, edo semia, edo se-

* Basatxistuba, abere batzuben iztazuŕez egiña.

** Oyu txiŕil̄i ta luzia, lagunai adoria ta etsayai ixu-ikarea saŕtzeko.

nařgaya, orok galdu ta negař egin biař doguz!

AGUREAK *(Batzuk)*. —Roma al andiduna da. Gudarozte bat zatiřu dautsaelarik, beste gudarozte bařijak batu ta bidaltzen dauz: azkatasuna beronen azken-zaindokijan iratoteko zin-esan dau, eta Euzkadi *'ko mendijetara edonundik batutako gudarozte-odeyak jauřtitzen dauz; itxaso asețatubak bere bitz gorija geure itxasertz zořotzeko aitz gořez atxin jauřtitzen daun lez.

*(Beste talde batek)*. —Ořija irutan zugatzak aldatu dabe Beizama'ko aran-ibař ixiltsubetan Octavius Augustus, Kantaber'tařak ** bezauta, guda-otsaz agiri zanetik... bere gudarozte bildufgařijakaz aran ixiltsu bigun areik betetan.

*(Gustijak)*. —Baña Iltzařaz ostez Ilbařija datoř; atzoko Eguzkijaz ostez gaurkuak dargi; eta jausi diranen odolak oindino bixi garanoen odol au gořotoz eře ta kiskaltzen dausku, eta geure gixon-mutil eřutsuben bijotzai kemena ta adoria damotsez...,

---

* Euzkotařen eřki-batza. *Euzko-di*'tik datoř, ta *euzko-batza* dikuř. Itz zařa eztalarik be, bai-leikian beintzat ixan, ikuřkoř-ikuřkořa ta Euzkel-lagi-lagiz eralduba da-ta. *Araba, Be-Nabařa, Bizkaya, Gipuzkoa, Laburdi, Nabařa* ta *Zuberoa* deretxezan eřkaldiak batzen dauz.

** Onek *Cantabria* eretxan eřijaldian egozan, eta gauřko Santander eřki osua, Asturias ta Rioja'ko zatijuk, eta noski Burgos'kua ta Bizkai'ko Encartaçiones deretxezan eři batzuk egiřen ebezan.

bai, orien, or buruka gogoraz ostez pizkatxu atsedeteko ta *Ilbete-Jai* andi nausi au geurekin egiteko or datorkuzan gixon-mutil indartsu erutsuben bijotzai.

*(Euretariko batek).*—Aupa, ba, orok, eta artzen guakijezan; aupa, ta bidera urten gakijezan.

GUSTI-GUSTIJAK: *Agura, emakume, neskatil eta mutiko-neskatuak.*—Aupa, bai, aupa, orok; eta bidera urten gakijezan.

## II ANTZERKIJA

USUNE *(Buru-zapijaz estalirik; baña bakarik dagola, kentzen dau.)*

---

USUNE *(Esakuna.)*—¡Neure buru amesti auk darabiltzan amets eta susmo ixukorak!... ¿Neuk mate-laztanduba, gixon erutsuba, buruzagi zerdena, neure bijotzaren gomuta- gomutea ¿il ete-da? ¿gudakean jausi ete-da?

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

*(Otoya.)*—¡Erori! ¡neuk mate-laztan audan irudi garbi utz ori! ¡nire gogo samindubaren otoi ilun au, ¡aren! erukiz entzun eta aditu eik!...

¡Bai! ¡Usune zori-galdubak bai-daki bere malasunari jaramoten etxakola; bai-daki

Onintze ederak, beronek uartuteka noski, gentzea ostu dautsola!

¡Baña arantza zorotz ori bijotzan josirik daukola be, Lartaun matiaren zoruna, bere aintza ta alea batez danaren zoruna gura dau!...

. . . . . . . . . . . . . . . . . . .

*(Belaunbika.)* ¡Eta gudari zinduari, mate ta ixil-jasankor-itun gurtzen daun gudari zinduari ¡Urtzi! * ¡aren! bixitxa jabon eyozu!... *(Zutiluten da.)*

. . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . .

¡Neure etorkixuna beti beratzaz oldoztia! ¡Lekurik-leku irudimenaz ibiltia! ¡Begijak-negar ta bijotza-lari aran-ibaretaz ziarkatzia! ¡Arkatxik-arkaitz, orein bildur ixu-samara, juan-etortia!... *(Buruban zapija dimin ñorbait datorela adilu daulako, ta ixiltxubago daral.)* ¡Beti gixoztietatik igeska ta beti gixoztiak igestaldurik! *(Geldiro-geldiro dua, ta eskumaldez ostentzen da.)*

---

* Ortzi agirijan notindutako jaungixuna.

# III ANTZEŔKIJA

*Agura, emakume, neskatila, mutiko-neskatuak, ikuŕinduna,* * *ta gudari-*TALDIAK. *Gudarijak gabiz, ikuŕdiz, azkonez,* ** *iztoz, azagaz, geziz, makilaz, eta aizkoraz izkilabak. Izkilo gustijok emakumiai ukaintzen dautsiez, eta onlek mutuŕ zoŕotza blaŕa daben zkilubak uŕengo egunerako zoŕozten diñardube. Gero Oleŕkarija.—llana da.*

---

GUDARI BATEK. *(Esakuna.)*—Ara Oleŕkarija geugana etoŕten. Bere abesti edeŕak abestu-erazo dayoguzan...

OLEŔKARI. *(Saŕtzen dalarik.) (Esakuna.)*—Bai, beintzat, eta pozaŕen. *(Eta* RITORNELLO'*z ostian, tanbolin-otsaz* *** *abesten dau:)*

---

* Aldi aretan euzkotaŕak gudakaetara eruezan ikuŕinak ikuŕatz motsa euken, leŕtzokoz ausitako lau besoduna. Igikun-antza eukan, eta *Eguzkija*, au da *egun-izki*, edo *argija*, antzalduten eban. Ortze-bidez ustezko ustaya egiten daula uste eben. Gau-argija lez, Eguzkija be guŕtuten eben, egunaren soŕtzaletzat eukela. Antzeztuten eben aunelan:



** *Azkona* eretxan euzkotaŕen guda-izkilu bedegaŕari; labuŕtxubagua ixanezkero *azaga* ereisten eutsaen.

*** *Tambour basque*'a aldijaz aldatu ba-da, be, bai-dirau oindiño Laburdi'ko baseŕi batzutan. Bere irudija tanbor edo naŕuzko oskiñaren ordez, lira edo loki-otsezko bikoitz eta motsarena da: lokijok zotzaz joten dira. Egitaŕen *olloteau* zaŕetik soŕtuba dirudi.

I

Gau mařekořak beren ilunaz
Geure mendijak zaintzen dauz:
Ama samuřak altzo beruan
Seme-alabak lo daukaz,
Altzo beruan lo daukaz.

II

¡Lo, jopu ořek! ¡Lo-eikezube!
Geure eresijak atuten.
Geure besuok jauřtiko zabez
Ilundijaren menbera,
Belaen alikatura.

III

¿Baña, ze-bila ona zatořtze?
Uřerik emen eztago.
Bai-dauke, baña, geure mendijak
Buřdin gogořa sabelan,
Buru-zaintzeko buřdiña.

IV

¡Tibertař ořek! geure bijotzok
Gořotoko zauz betiko:
Geure izkilubak eukiko dozuz,
Ona ba-zatos, sabelan;
Ara ba-zigetz, ¡uzkijan!

ABOTS BATEK. —¡Ondo! ¡Ederto! ¡Gora Olerkarija!
GUSTIJAK . . —¡Gora! ¡Gora euzko-abendea!

*(Oro duaz.)*

# IV ANTZEŔKIJA

LAŔTAUN, ONINTZE *eta eŕija.*

---

*Gaba da. Antzeŕki-erdil̃an neskatil̃a ta mutiko-neskato batzuk, eguŕak igoŕtziki, landean sutzaŕa gertuko dabe; batez, uŕuneko mendijetan be beste sutzaŕak, batzuk bestiez ostian, eŕeko dira. Gero Il̃azki betia ikusliaren eskumaldez dagirke, ta astiro-astiro ortzia ziaŕkatuko dau, eta eleskijaren antzezki-amayaldijan eskeŕaldeko menditzaŕez ostian dostenke.*

---

LAŔTAUN. *(Auŕera-dagi, Onintze eskuz, adeitsu ta aguŕkiro dakaŕala.)* ¡Gudarija etxeratzia, gudakean zorijak iŕibaŕe egin ba-yautson, dan gozo-eztija! ¡Bijotzaren zauzkadeak donazan alayak etxekuen baŕe-santzuaz, aŕtzeñ yonan bixi-pozkoŕaz! ¡etxekuak, irabazil̃ako gurendeaŕen, egil̃en yautsonezan poz-aguŕ, oyu ta abestijakaz!...

¡Eta bere bijotzeko neskatil̃a mal̃agaŕijaren begijak begiratuten yonela zoruak moskoŕtzen yon!

ONINTZE. . . . ¡Bai, ziñez! Baña ¡ai, ene! Il̃azki garbija odei baltzak il̃undu ta baltzil̃uten yok, bata be gudarijak, txabolara yatoŕala, txabola-zokonduan gose-irudija yakusak, eta il̃unaz ta negaŕaz zoruna ta ospia estaltzen yozak!

¡Eta bijotzaren zati dozeanen aŕpegi mal̃agaŕijetan gosiak erazotako tximuŕak ya-

kusazala, lafijak bijotza aftzen yautsok, eta min zolijaz espen mingotsezko negaf -malkuak ateretan yautsozak!...

LAŔTAUN . . . *(Ilazkija geldiro-geldiro dagir.)* — Baña dana dala, keska ta eragozpide gustijak jazafkau ta ezi biaf yogunaz... Baña gaba aufera yuan, eta iIundiko ixaf zufgafijak * ortze ixaftsuban afpegi zurbiIa yagefna!...

ONINTZE. . . . —Euzkotaf zindua txaboletatik yurtek, eta Gogo Andi eskutaba ospatzeko oinketeak eta abestijak gertzen yozak.

LAŔTAUN . . . —¡Onintze edef ta maIagafi ori! Gogo Andija bera ziñaltzaIe bayedin, nire bijotzeko gafaren ziñaltzaIe bayedin, eure edefaren edefa yakustanala!

ONINTZE. . . . —¡Laftaun! Ariñaren ariñaz yatofkubazan jazokun gaitzak etxautsek nire belafijai itz bigunak entzuten izten, beste baten, bai, bigunak layitzakedazan itz ofiek.

LAŔTAUN . . . —¡MaIe audana maIe audala! ¿ta ofen ezeskof ta bijotz-gogof eu niretzat? Adin, ene bijotzeko Onintze, gudari zaletsu onen itxarokun gozo, bigun ori!...

ONINTZE. . . . —Abefija ta asabakandiko uzkuftzaren eikixunak matekadeak baño lenago dozak...
Lekobide, aIon ** ontsu, Buru ta Jaupari

---

* Aldi atako euzkotafak, asabakandiko askitzari jafai, Eguzkija, edo egun-argija lez, bala be *Ilazkija* zintzoro gurtuten eben, ilbetera elduten zanetan. *Ilargia*, ala *Ilazkia* ereisten eutsen, eta ixen bijok *Ilan* edo *gauko argija* dikufe.

** *AIiIa* be esaten da.

nausija, gauko Argijaren jai nausiṙan etoṙi biaṙ dok. Berak gau ontan Azkatasunaren ereseṙki deuna esan, eta otoyak abots gogoṙaz egin biaṙ yozak...

¡Uts-egiṙia gaiztokeririk latzena litzokek!

LAṘTAUN . . . .—Eurekin juaten, ba, neuri, be, itxin.

*(Etoṙi ziran eraz duaz.)*

# V ANTZEṘKIJA

## OINKETEAK

*Gudarijak, emakumiak, agura-atsuak, mutiko-neskatuak eta eṙiko gustiṙarikuak elduten dira.*

*Oinketa-ots bedegaṙa, gixonezkuak ots-dagijezan albokaz, txistuz ta txiṙibiṙuz ta beste artzain-ereskiñez batez-be egindako ereskintzeak joten daularik, neskatiṙa batzuk naṙoskiña darabiṙe, ta beste batzuk moltsoz sutzaṙ-biraka ta eskuz oraturik, iṙaidea-dagije, ta noxian-bein azkatzen dira ijuti ta birakeak egiṙeko, ta alayuak * jauṙtitzen dabez.*

*Gudarijak albuan, euren azkonakaz oinketeak egiṙen dabez.*

*Sutzaṙaren keyaz-ziaṙ eta berarekin nastauki, luṙunezko itxal-itxureak, maṙagaṙi ** leṙden-antzadunak, batzuk bestietaz ostez, urteten eta igoten ikusten dira.*

* Didaṙ luze alayak, menditaṙen bedegaṙak eta alpestaṙai jaikundietan entzuten yakezan lakuak.

** Aṙobi ta oyanetako mamuak.

# VI ANTZEŔKIJA

LEKOBIDE, ONINTZE, LAŔTAUN, *gudarijak eta eŕija.*

---

*Oinketeak amaŕuki, landa-erdijan, Lekobide agurea, oŕkaŕte a s ti ta gixakera itxaltsu, orok aguŕ ta leku-dagitsaela, dagir, eta jaŕai Onintze, Laŕtaun'ak eskuz adeitsu ta aguŕkiro dakaŕala. Laŕtaun Lekobide'ren eskeŕaldian eta zutunik dago; Onintze, baŕiz, eskumaldian, eta Lekobide'k oŕkaŕtia auŕera ta besuak gora, ereseŕki-otoya esaten, dagixala, Onintze'k belaun bat luŕan dimin.*

*Ilazki betiak argi-egiten dautse; ta eŕija ta gudarijak atzez dagoz uŕunago moltso-egiten.*

*Onintze, Laŕtaun eta gudari-buruzagi bi Lekobide'ren eskuma -eskeŕaldietan, Lekobide baño auŕeratxubago, jaŕiko dira, abots utsezko laukotxa egiteko, ta asiko dira abesten:*

---

ABOTSAK BAKAŔAK. . .—¡Eguzkija il da!
¡Eguzkija il da!
¡Ilunak Eguzkija
Il Eguzkija!

LEKOBIDE . . . .—*(Nausikiro ta besuak jasorik: Onintze, belaun bat luŕari dautsala.)*

—Aguŕ, Ilazki edeŕ deun ori! ¡Aguŕ iri!
Odei-ostian Gogo Itxalgaŕija bixi da.
Berak gugana bidaldu ausku: ¡Aguŕ iri!
¡Aguŕ Berari!

Azkenengoz ortze-bidia ik egiñikan,
Mosu zurbil ori bar̃etsu erakuskuban
Eguzki-semien * azkatasun-eresija
Ik adir̃uten.

Oin be, len legez, Gogo Andiri gudarijak
Eskain-opea damotse; ta er̃omatar̃a
Gor̃oto dabela zin eta diadar̃ dagije,
¡Zin ta diadar̃!

Gaur̃ dator̃tzala burubak-jaso garaikun-[tzaz,
Esku-izkil̃ubak jopu-areyuen odol̃az,
Eskar̃-dagitsae, bar̃a alayua darabil̃e
Bustar̃ik bage.

Bustar̃ik bage eta azka,
Mendi-ar̃anua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*(Gudari-taldiak azkonak atxetan batera jo-egil̃en dabezala, ber̃esaten dabe:)*

TALDIAK. . . . . . .—Bustar̃ik bage eta azka,
Mendi-ar̃anua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*(Onintze autil̃uten da.)*

---

* Euzkeraz, edo euzkotar̃en ele zar̃-zar̃az, *Eguzki*, ta bijor̃tuta *Euzki*, egun-argija da. *Eguzkoa*, bijor̃tuta *Euzkoa*, Eguzki-aldekua da; ta norbar̃ek uar̃tu eban lez, ixen bijotan euzkotar̃en abenda-ixenak eta eurak gur̃tuten eben ixar̃ argitsubak dauken alkar̃-antza duar̃kegu.

*Geldune labuŕa.*

*(Lenguen laukotxa, abots utzezkua.)*

ABOTSAK BAKAŔAK . . . —¡Eguzkija il da!
¡Eguzkija il da!
¡Il̃unak Eguzkija
Il Eguzkija!

LEKOBIDE . . . . —Eroŕek, Ilazki edeŕ oŕek, esaskeguk:
¿Gogo Andijak, Egil̃e nausijak mendijok
Jaungotzako baŕegaŕijen guŕtzal̃iontzat
Egin dauz-ala?

¿Mendi-neskatil̃a, edeŕ, zurija, garbija,
Ortzaizkijaren garbiŕasunaz jantzi al dau
Oŕen andera andiki ustelduben oñetan
Jopu-eŕeko?

¡Geuria dogu eŕi done laztan edeŕ au!
¡Geuria bai-dogu Urtzi'gandiko ele * zaŕ au!
¡Gogait zeroŕei dagitzuben buru-jaube au
Geuria dogu!

Itxaso baria Iŕnio-ganera igongo da
Aŕotzok baño lenago; bulaŕan aŕnasa
Leukanaŕte, euzkotaŕa mendi-jaube ixango
Bustaŕik bage. [da

* Eleskijok Kistaŕdiko lenengo eungijan zabaltzen dira; ta aldi atan Euzkadi'n euzkeraz bakaŕik egiŕen zan. Augatik euzkeraz bakaŕik be eresaldu biaŕ dira; ostera, euretako antzeznotiñak aldi -atakuak lirakez.

Bustaŕik bage eta azka,
Mendi-aŕanua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*(Gudari-taldiak, azkonak atxetan batera jo-egiñen dabezala, beŕesaten dabe:)*

TALDIAK . . . . —Bustaŕik bage eta azka,
Mendi-aŕanua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*Geldune labuŕa.*

*(Lenguen laukotxa, abots utzezkua:)*

ABOTSAK BAKAŔAK —¡Eguzkija il da!
¡Eguzkija il da!
¡Iĺunak Eguzkija
Il Eguzkija.

*(Uŕuneko sutzaŕak itxungi-agiñian dagoz; antzezkikua itxungi da:)*

LEKOBIDE . . . —¡Aguŕ! ¡Aguŕ! ¡Iĺazki deun ori! ¡Aguŕ iri!
¡Odei-osteko Gogo Andijaren geznari,
Aguŕ, Iĺazki on, edeŕ ori! ¡Aguŕ iri!
¡Aguŕ Iĺazki!

Eŕi garbi au ezaindu daunetik etsayak
Beŕogei bidaŕ Gogo Andijaren aguŕaz
Ekaŕi dauskuk azkatasunaren izpaŕa,
Ekaŕi dauskuk.

Mendi-aranak beŕogei bidaŕtan azuŕez,
Geure lagunen azuŕ gogoŕez bete dira;
Goguak, baña, Gogo Andigana jun dira,
Gogo Andigana.

Asko nai gitxi, mendi-gixonak alayua
Deyadaŕ-dagi; garai ala ezi, il eta bixi,
Ilbetia iľian-ilian ospatuko dau
Bustaŕik bage.

Bustaŕik bage eta azka,
Mendi-aŕanua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*(Gudari-taldiak, azkonaz atxetan batera jo-egiten dabezala, beŕesaten dabe:)*

TALDIAK. . . . . —Bustaŕik bage eta azka,
Mendi-aŕanua,
Itxaso-ekatxa,
Gogo Andija lez.

*(Lekobide ta Onintze duaz, au arek eskuz aŕturik. Eŕij, be, eurotaz oste dua, alayuak, gero ta uŕunaguak egiten.)*

## VII ETA AZKENENGO ANTZEŔKIJA

LAŔTAUN *eta gudari-taldiak.*

LAŔTAUN . . . . —*(Ondoko gudarijak ufendu dakijozala eginki auferatzen da.)*

—¡Euzkotaŕ lagun eta abeŕtzale oyek! Zin-desagun gauŕ; bai, gauŕ, iralako * ilbete onetan, batzuk bestiakandik aldendu ta gauko argi deun au ilundu-auŕeko, zin-desagun bijaŕ egubantzaz batzanduko garala, ta buŕukean euzkotaŕ-lagiz egingo dogula! *(Ilazkija ostentzen da.)*

¡Izkilubai Eguzki baŕijak argi-egingo dautse gudaka baŕi ta odoltsubaŕtian!

*(Gudari-taldiak izkilubak, batzubenak bestienakaz, ziña sendautzeko, alkaŕturik:)*

TALDIAK . .—¡Gogo Andijak euzkotaŕen eŕija zaindu-ko dau!

ANTZEZTOKI-EUNA ASTIRO BERATUTEN DA.

* Iralako ilbetiari dagokija.

# BIGAŔEN ELESKIJA

*(Oskoŕi argidun margodurea)*

# GUDAKA NAUSIJA

*Antzeznotiñak:*

LEKOBIDE

ONINTZE

OTSOAL

GUDA-SEÑAK

AGUREAK

TALDIAK

## ANTZEZTOKIJA

Lenengoz Iŕnio'ren gana, eta uŕun beste mendi gaĺuŕ asko.

Egubantz garbi-garbijaz goxaldia asten da; eta antzezki-euna batuko danian, antzezki-azkenian agiriko da.

Guda-señak mendiko gaĺuŕik garayenan adaŕa guda-otsaz joko dau.

# LENENGO ANTZEŔKIJA

*Guda-señak, agureak, guda-burubak eta gudaŕi-taldiak*

---

*Antzezki-euna batzen dalarik egun-argija asten da. Zokonduan Eguzki baŕijaren izpijak zabaltzen asten dira.*

---

## GUDA-SEÑAK

*(Iŕnio'ren ganan guda-señak adaŕaz uaŕ-otsa joten dau, eta beste mendijetako guda-señak derantzutsoe ots uŕutijaz, gero ta gitxijago, gustiz galduraŕte entzuten danaz. Gero begikatzen dira, eta baŕuban guda-otsa, gudarijak del̄uteko, entzuten da txistubak jota. Gudarijak Iŕnio'ren egiko landara jasten dira; landa onetan aŕkaitz andija antzeztuko da areitz andijak itxal-egiña. Berton, ereskintzeak auŕkotsa joten daun aŕtian, guda-buru ta agureakin alditxu elezta-dagije, eta oztez ta santzoka aranera jasten dira uŕengo abestijak eresten eta abeski banakaren ondoren iŕintz zolija egit̄en.)*

*(Taldez.)*

GUDARIJAK. . . – Roma'ko ařotzak
alegin, eta
Euzkotařak dagi
santzua.
*(Iřintz gogořa dagije.)*

Bat eta bestetan
gau ta egunez
Atseden-bage
moltsua.
*(Beste iřintz bařija uřuntxubagua.)*

*(Uřunduten.)* Aran legořak
eurenak dira;
Mendi garayok
geuriak.
*(Iřintz bařija uřunagua oindiño.)*

Octavianus
tibertař-buru,
Euzkotař-buru
Lekobide
*(Uřun-uřun iřintz bařija entzungatxa.)*
*(Gustijak duaz.)*

# II ANTZEŔKIJA

## LEKOBIDE *eta* ONINTZE

LEKOBIDE . . . *(Oldoztun datoŕ; eta aretxak kerizpetutako atxan jesaŕtzen da. Bertatik guda-tokija, aran-guenan dakus.)*

—¡Ai ene! ¿Zegaŕik, ba, berarekin gixon indaŕtsuben iru gixaldi eruaten, nire auŕian igazi dan aldijak enau ni, be, buru-nausi alge au eruan?

¡Ni nazan agura gauza-ez zaŕkiŕuba!

¿Zer egin ete-dot iŕintzi-egin dodan beŕogetamaŕ gudaka onetan iñoren aizto eŕukijoŕaz ez joteko, aintza-ogietan lo-dagijenakin atsedeten bidalduko nenduban aizto eŕukijoŕaz?

*(Zutik.)* ¡O Zeu Gogo Andi ezaukaitz ori! ¿Zeuk agura zorigaiztun onek bere azken-egunetan abendearen galtzakundia ikusi dagijala zeure idazkun ixiŕetan idatzi ete-dozu ala?

¡Ez! ¡ez! ¡Neure eŕi maŕe ori! ¡Ez, neure abeŕi bigun laztan! Lenago begijak Gogo Andijak itxiko yostazak, eure buru-jabia eŕomataŕaren oin donauskoŕak oinkatu baño!

ONINTZE. . . . *Aŕona-billa datoŕ, ta dakusanian idunez oratzen dau ta samaŕkiro laztandu.)*

– ¡Añona! ¡Ene añona! ¡Zeure bekokija ekatxa buruban daukan Anboto *-gane lakoxe iluna da aspaldijon! ¡Zeure espanak ixildu dira aspaldijon; eta Onintze alabasuari eztautsae dei-egiten zeure altzuan jesari-eragiteko, bere uliak eskuztatzeko!... ¿Zer ete-da, ba, nire añonaren bijotzak daukana nire begijetatik bere begijak, eta nire espanetatik bere espanak alde -eragiteko?

LEKOBIDE . . . –¡O Onintze eder ori! ¡Añonaren bijotzak odola baño maitiago ori, igazitako zorunaren gomutea baño Onintze gozuago ori! ¡Iluna ixan zonan, bai, euretzat eta eure aberijarentzat euk ikusitako lenengo argija! ¡Guda-oyubak eta negar-zotin mingotsak, maite-abestijen ordez, eure umetako lua urukatu yonen! ¡Etorkixunak egin yon, enetxu ori! Baña negara, geure abendean, bijotz-etsija don, eta alpertasuna olokerija, eta nai-ta-nayez, etsai asekatxaren zartada gogorak bular-sendo ta begi-aro jasan biar.

¡Eta geure mendi-zelayok gaur argi-dagixan Eguzki au bijar ixango da *gudaku nausijaren* ziñaltzalia!

*(Aranera begiratzen, eta Eguzki-izpijak aldetzeko bekokijan eskuma zabala imiñirik.)* Baña...

* Bizkai'ko mendi arkaitsuba, Anboto'ko anderea deretxan aselia iratori dauna.

bai-dira buŕukarako gertzen... bai-dabe geuriak eta Octavianus'en gudaroztiak gudakea asten... ¡Neuk ikusi gura dot... neuk neure begijokaz gudakearen gora-bereak arakatu gura dodaz!

ONINTZE. . . . —¡Eguzki altsu ta izpitsu! ¡Garaitza geutaŕai emoskioek!

## III ANTZEŔKIJA

*(Berberak)*

---

*Ereskintza ta esakunezko antzezkija. Aranan gudaka-dagijela dirudi. Bīaŕtian ereskintzeak guda ta zarata-otsak joko dauz, noxian-bein santzo ta jupa-oyubaz, noxian-bein ayola ta adorebagia ikuŕtzen, noxian-bein guda-izkilubak uŕun erazotako izkanbīla. Baiez gudakearen gora-bereai begiratzen, Lekobide ta Onintze'k gudakeaz elaztuten dabe. Eresija ots uŕunekua* (REVERIE-*motakua.)*

LEKOBIDE . . . *(Noxian-bein eta ereskintza-otsari dantsola, esaten dau.)*

—¡Bai-dira geuriak sakunietara elduten... bai-dabe makuŕtzen belaun bilotsa aŕokiro aupada-deyez izkilosak jauŕtitzeko! . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

ONINTZE. . . . —Agestua euzkotaŕ azkaŕak igaro dabe. Azkon zoŕotzak eŕomataŕen gladius'akaz jo egin dabez mendiko gudari bizkoŕak. .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

LEKOBIDE . . . —¡Eŕez-euŕez odola! ¡Bai; euŕez, euŕez odola! ¡Guda-gixonak, batzuk eta bestiak, sumiña! . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

ONINTZE. . . . (*Joreñaz.*) —¡Jausten diranen negaŕ intzirak iĺoten dira gudaka-diñarduben gaŕazi-oyukaz! . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

LEKOBIDE . . . —¡Gorpu iĺotzak! ¡Odol jorija! ¡Autsezko odeyak! ¡Kirats iguingaŕija zabaldu ta aŕtzen da! . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

ONINTZE. . . . —¡Gogoŕ baño gogoŕago, euzkotaŕ eŕutsu oŕek! ¡Aŕterik bage, atsedenik bage gogoŕ-ein! ¡Ez itxi burubok aŕotzak bezetan egundo! . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

LEKOBIDE . . . —¡Gogoŕ-gogoŕ eŕomataŕak ekiĺen dautso. Aintzargiz bekokija burestundaba darakus, eŕijak eta eŕi-bakaldunak menbetubaz, aŕano goĺiak eruan dabezan tokiĺan! . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

ONINTZE . . . —Gogoŕ, bai, ziñez, eŕomataŕak ekiĺen dau. Baña euzkotaŕak emaztiaŕen ekiĺen dau...; seme-alaba kutunakaŕen ekiĺen dau...; bere

mendijen azkatasunaŕen ekiĩen dau...; Gogo ezilkoŕak sutau eta adoretan dau! . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

LEKOBIDE . . . *(Subaz.)* - ¡Auŕera! ¡auŕera! geutaŕak gaŕaxi dabe... Eŕu gorijaz etsai-gudoztia jo dabe... buŕdin-janzkidunen leŕokada mamintsubak buŕusten dabez, apuŕtzen dabez, deusezten dabez. ¡Gora euzkotaŕak! ¡Bai -dira garai! ¡Gora euzkotaŕak! . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

ONINTZE. . . . *(Gotĩunaz.)* — ¡Ai! ¡Bai - dabe egun au ameak eta ameak gaiztetsiko! ¡Neskatiĩeak egun au samin gogoŕezko malkuez bustiko dabe!

LEKOBIDE . . . —Nire betazalok oin bustitzen yonezan malkuok aŕotasunak eta asetasunak erazo yostanaz batetik, geutaŕen garaitza ikusiki; eta bestetik indaŕ-auneak eta iĩundasunak nonan gauza-ezaŕen... ¡Eure begijez besterenak ba'layekusanez buru-nausi zaŕ onen lotsakixuna layitzakenaz!

*(Eŕesija itxungitzen da azkenengo esneuŕkĩñan* PIANISSIMO, *ixilik-samaŕ dirala.)*

Aguŕ, ba, enetxu ori, ta uake; guda-gixona etoŕi biaŕ don; eta berau etoŕi-auŕeko makalkerijak erazo yostanan atza atzindu gura yonat.

*(Onintze'k baŕiro aĩona laztantzen dau eta begiak aĩonagana zuzenduki, astiro-astiro aldentzen da.)*

# IV ANTZEŔKIJA

## LEKOBIDE *eta* OTSOAL

OTSOAL . . . . *(Bat-baten dagir.)* — Iŕnio-ganian etsayaren ikuŕiñak gurago nebazan ikusi, euzkotaŕen buru-nausijaren begijetan negaŕ-malkuak baño.

*(Lekobide'k iĺun-iĺun buruba zuzentzen dau autukidiari begizka.)*

¿Azkenengo ilbetian Ilazkijaren auŕpegijan itxal-iĺunak ikusi dauz-ala, eŕijaren zoritxaŕazko izpaŕak ekaŕtzala?

LEKOBIDE . . . —¡Ez! ¡ez! Neskatiĺa zurbiĺa argi ta garbi bidegeltsuba-ziaŕ jaŕaindok...Baña ¡Otsoal! ¡Lekobide'ren negubak asko dozak, ta abeŕijaren galtzorijak andi-gaitzak! *(Jesaŕtzen da.)*

OTSOAL . . . . *(Iŕiz.)* — Izpidia daukazu, agura. Gorbea*'ko aŕanuak aŕokiro Eguzkirantz-dagi, gaste-beruak berotzen daunian; baña zaŕtzaruak eŕuba epeldu ta otziĺu dautsonian, aŕkaitz-aŕtetan datzau bijotz-uŕi, adorerik bage, il-samaŕ! Agura izpidia daukazu: zaŕegija zara abendakidien buruba ixateko!

LEKOBIDE . . . *(Aseŕeturik.)* — ¡Otsoal! ¡Otsoal! ¿Zer ete -dok ori, itz oŕekaz esan gura daustean ori? *(Zutundu ta buruba jasoten dau aŕokiro.)*

---

* Mendi garai-garaya Araba eta Bizkai-aŕtian.

*(Bijok ixiĺik: itz-bako ikuskixuna.)*

OTSOAL. . . . *(Lekobide'ri begizka, eta ixakerea ta aboskerea aldaturik.)*

—¡O! ¡Olan, bekoki aŕo oŕegaz, suzko begirakune oŕegaz, euzkotaŕen itxaropide ta aŕopidia dan begirakune sutsu oŕegaz zaguan ondo, buru-nausi zaŕ! ¿Enintzan, ba, ikara-ixango, Lekobide, etsayaren gogoŕketeak geure gudari bulaŕtsurik zaŕenaren eta eŕutsubenaren adore ezikatxa eratsiko al ba'lebe?

LEKOBIDE . . . —¡Ez Otsoal, ez! Neure besuok, adaŕ igoŕak lez, nire lepotik inďaŕ-bagerik eta eŕurik bage jasten dozak; nire iztaok soin aztunaren gogoŕak makuŕtu-erazoten yozak, saratzaren enboŕ biguna adaŕkijak erazota lez.

¡O! Neure anayak, neure eŕiko agureak buru-nausijari entzun eta jaŕain gurako ba'layotsek, geure mendijok bat-baten yeritxuat Octavianus'en jopubatzaz garbi ikusiko layitzakezak.

OTSOAL . . . . —Itz-egixu, Lekobide, itz-egixu. Zeure onubak eŕijarentzat dira, Etumeta* ko baso iŕubetan guda-gixon galdubarentzat Ĩlargi-izpijak dirana.

LEKOBIDE . . . —Adi, ba, Otsoal. Gudaldi gogoŕ onetako beŕogei iĺeak Roma aunatu yuek. Bere gu-

---

* *Baso-Jaun*'aren aselia eurotan zabaltzen da.

darozterik senduenak emen jo ta apuřtu egin dozak. Eřomatařa adorekatuten asi dok; eta euzkotařak alegiñik nausijenaz uleřtarazoko baldin ba'layoskioek gauřařte besteko gudaka gaitz, gogoř ta odoltsuba jařatuteko gerturik yaguala, Roma'k negu-atian, bere gudaroztiak aldendu egingo layokezak.

OTSOAL . . . . —¿Zer ete-da nik entzun dodan au, Lekobide? ¡O! Zeure itxok Otsoal'entzat bigun, gozo, eztitsubaguak dira, mařaliaren bijotzarentzat neskatiľa mařaliaren iřibařiak baño.

LEKOBIDE . . . —Baña, ezegik aiztu, anai ori, eduř-iñoztia eldu-aureko irutan jai deun nausija egin biař yogubala, eta biľařte onetan etxozeala geure areyuen izkiľubak alpeřik egongo.

OTSOAL . . . . —¿Eta zer, areyuen izkiľubak-ařen?

LEKOBIDE . . . —¡Ai, Otsoal! Areyuen izkiľuren bat gosia dok; eta gosetia erijotz-gogua lez geure eři-ganian zabalduko dok.

OTSOAL . . . . —¡Bai, ziñez! ¡ořexek dira euren izkiľubak! ¡luřasua menbetu dabela-ta dagozanoen izkilubak! ¡Euron txatxařak eta kiřtentzařak!...

LEKOBIDE . . . —Nik, baña, inaka nayegiskioek nire anai zařak ba'layeukakiek bijotza... bijotza biařa dok, bai; bijotz-bijotza biařa dok!

OTSOAL . . . . —¿Bijotz-bakorik iñor geure eřijan dago -ala? Itz-egixu, beñik-bein; esan beñik-bein

gura dozun ori. ¿Zer ete-deskatse anayai buru-nausijak?

LEKOBIDE . . . —Jaraitzeko.

OTSOAL . . . . —Jaraingo yatzuz. ¿Nora, baña?

LEKOBIDE . . . - Erijotzera. Geure erijotzak aberija gaizkatu al yaikek.

OTSOAL . . . . —¡Il gatezan, ba! Ezta bapez ixango ezetz desaskezuna.

LEKOBIDE . . . —¡O! ¡Aulan ixango al ba'layitzak! Ta aulan ixango dok, geure artian bijotz-uririk bapez eztok-eta.

OTSOAL . . . . —¡Bai, beintzat! Baña...

LEKOBIDE . . . —Otsoal, adi. Gudarijak ila bitako alapidia yaukek, ila bitako bakarik. Eromatarak ixotzaz alde-egiteko asmua layeukakiala be, ixotza belu baldin ba'layetork, moltsuari ekingo yotsoek; eta leri gogor sendo au, burdinak egundo ez ezi au, gosetiak erailgo layeukek! Baña gudakarako gauza -ez gozean agura gustijok, gudari bizkorai biara yuen ogija utsituteko baño ezkozean agura gustijok, aberijaren aldez burubak eskañi gura ba'gayokezak, gudari gastiak ixozterarteko ogija layeukakiek, ixoztia... ¡Baña eure gorputz orek dardara, nire itxok aren, yagijala yakustak, Menduria *' ko orein bildurtijak txakuren zaunkeaz lez!

OTSOAL . . . . —Ez, baña, bildurafen, agura. *(Buruba arokiro jasorik.)* Ez Menduria'ko orein bildur-

* Gipuzkoa'ko erkaldia.

tijak txakuŕen zaunkeaz lez beintzat; bai, baña, euzkotaŕ basoti gogoŕak lez, untzau daben gurutzetik eŕomataŕen mosu-mosura txuba jauŕtitzen daun lez.

LEKOBIDE . . . —¿Buru-nausijari jaŕaingo yakuala, ba?

OTSOAL . . . . —Auŕetik jungo naz, aintza-bidia edeŕ-edeŕa da-ta.

LEKOBIDE . . . —¡Ai, Otsoal! ¡Bestiak onetsiko ba'layoek, geure eŕi onek ixango layokian egun-eguna! Ainbeste agureak abeŕijaren aldez burubak eskaintziak dardara-eragingo layoskioek joputzaŕ oŕen bijotz emetijai, eta euren jaun nausijari gudaroztiak galdutako eun gudakeak baño zauskada ta ixu-ikara gaitzagua erazoko layoskiok.

OTSOAL . . . . —Lekobide, *(Laztantzen daula.)* Gudarijakana ainbat lasteŕen mua. Anayai itz dagiskioet: gustijok zeure deira elduko dira, onenbesteko zori nausijetan gudari zaŕaren erijotza bijotz-zindo ta uste andija da-ta.

*(Bai-daaz, bata eskumaldez, ta eskeŕaldez bestia.)*

*Ereskintza-biŕaŕte labuŕa.*

# V ANTZEŔKIJA

ONINTZE *(Agura-taldiak igaroten.)*

ONINTZE. . . . Ixil̄une itun oni aiztitz baltza deritxot; eta bai-dogula gudakea irabazi, eztakit zer dala-ta, nire gogo au it̄un sakonak aŕtzen dau. Agureak batzaŕera * det̄u dira; eta zetako batzanduten diran eztaki iñok bez.

*(Antzeztokijan eskeŕaldetik eskumalderantz agureak igaroten dira.)*

AGUREAK . . . *(Ozte bat. Batez igaroten dirala. Astiro.)* — Lasteŕtxe etoŕteko buru-nausijak ba-diñosku, arazo gaitza edo-daike. *(Bidiaz duaz.)*

ONINTZE. . . . Eurak bakaŕik det̄u dira; guda-bururik bikañenak eztira det̄u; saŕkaldeko eŕki-burubak eztira det̄u.

AGUREAK . . . *(Beste ozte bat. Batez igaroten dirala.)* — Lasteŕtxe etoŕteko buru-nausijak ba-diñosku, arazo gaitza edo-daike. *(Bidiaz duaz.)*

ONINTZE. . . . Goiz-goxian eŕomataŕen geznarijak gentzazko itxaz etoŕi ei-dira; baña, ez-edo-da ori txabola-baŕuban darabilezan eztabaidaen zegat̄ija.

AGUREAK . . . *(Beste ozte bat. Batez igaroten dirala.)* — Lasteŕtxe etoŕteko buru-nausijak ba-diñosku, arazo gaitza edo-daike. *(Bidiaz duaz.)*

* Agura-batzaŕa edo bilgunea aldi aretan.

ONINTZE. . . . —Gentzea ta gudea Batzaŕ nausijan iřundu biaŕ dira; baña gauŕ agureak bakařik deřu dira.

AGUREAK . . . *(Beste ozte bat. Batez igaroten dirala.)* An geldiřu diran anai zařak autařki-egiteko ala emon dauskube. *(Bidiaz duaz.)*

ONINTZE. . . . —Abeřija bijotz-gogořa da seme-alabeai buru-eskañik gaitzena eskatzeko. Nik, umetan neure guraso laztanak galdu nebazan neronek, ařonařen eta abeřijařen itxung biaŕ dodaz neure bijotz onen bijozkada bigun, gozo, zorakořak, etořkixunaren iřibařia yatazan bijozkadaok itxungi biaŕ dodaz.. Ezta asko negaŕ ta aika-egiřia; gogua be jaso biaŕ da ta etořkixunari bekoki ařoz aupa-egin biaŕ yako... Enau ezek bez bilduřtuko; baña zer jazoten dan jakin-gureak iřoten nau..., eta jakin, iřandu, edonun azteřtu-biařa dot... ¡Urtzi berea bekit, eta indaŕ makalok birostaz!

*(Bai-dua.)*

## VI ETA AZKENENGO ANTZEŔKIJA

LEKOBIDE *eta agureak.*

---

*Batzaŕa bukatuki agureak txabolatik urteten dira; ixiltxu ta astiro datoŕtz; euretaz ostez Lekobide begirakune sutsubaz, bijotza ta suba darijozala. Aitz-ondoko zugazpian lotuten dira; eta erdijan dagola, agureai buru-nausijak dirautse:*

LEKOBIDE . . . —¡Anayok! ¿an baŕuban aŕtu dozuben erabaki gogoŕ gaitza baŕiro ta gogoz onesten ete-dozube?

AGUREAK . . . *(Batez gustijak:* — Gusti-gustija ta gogoz onesten dogu.

LEKOBIDE . . . —¿Zuben aŕtekorik iñok etsayak ekaŕitako meni ta gentza-itza entzun eta iŕundu gurako ete-leuke?

AGUREAK . . . *(Batez.)*—Bat-ez-batek; bat-ez-batek.

LEKOBIDE . . . —¿Meni ta gentza-itxok, ba, gustiz-gusti ezesten dozubez-ala?

AGUREAK . . . *(Batez.)*—Ezesten doguz; ezesten doguz.

LEKOBIDE . . . *(Astiro.)*—Ondo. Bijaŕ Eguzkija beztuten asiko danian, eŕi onetako buru-nausijak eŕomataŕai zuben erantzuna eruango dautse.

*(Auŕetik duaz.)*

ANTZEZTOKI-EUNA ASTIRO JASTEN DA



## IRUGAŔEN ELESKIJA

*(Argi goibeldun margodurea)*

---

# BURU-ESKAÑA

---

*Antzeznotiñak:*

LEKOBIDE
ONINTZE
USUNE
LAŔTAUN
OTSOAL
OLEŔKARIJA
AGUREAK
GUDARIJAK
TALDIAK

---

### ANTZEZTOKIJA

Iŕnio mendija beste aldetik. Eskeŕaldian amilďoki sakona gudarozte bijak banatzen. Amilďoki-onduan lats otsandi bultsuba. Amilburuban, lats-onduan, aitz urtenak; eurotatik bat gixon andija eskutautzeko aña. Eskumal-

dian, antzezkixun-onduan, bustiñez ta abařez egindako txabolatzaŕa, auŕeko aldian ate-zabalduna.

Laño-eguna iřun goibela.

Antzeztoki-euna jasoko danian, Lekobide ikusiko da otso-nařuz estaliriko enbořan jesařirik, txabolatzařaren ate-onduan eta buruba eskumiaz atsedeten; Onintze, bařiz, luŕa-ganian jesařirik eta ařonaren altzuan buruba jařirik; eta beste aldian, buru-nausi zařaren oñetan artzañoratzařa etzaunik.

Ereskintzeak auŕkotsa joten daunařtian, antzeztoki -euna jasoko da; eta abagadunetxuba ixango da, antzezkixuna, iřuna ta bare-biguna batez, ikusteko.

## LENENGO ANTZEŘKIJA

### LEKOBIDE *eta* ONINTZE

ONINTZE. . . . —¡Ene ařona! ¡Alpeřik da zeu ixiltzia! ¡Bai -dakit! ¡Itxiko nozu! ¡Bai! ¡Itxiko nozu! ¡Erijotzaren itxala zeure begijotan dakust!... ¡Zeure bijotzon digařt!... ¡Zeure buru zuri-aguŕgaři-ganeko erijotz-itxala digařt! ¡O! ¡Ene ařona! Senidiak..., aizkidiak... oro ogen-egin al ixan edo-dozuz; baña, zeure bijotzeko alabaso au, zeure odoletiko odol au, ez, ene ařona, ez; zeure bijotzeko alabaso onek gustijak batez baño mařiago zau-ta.

LEKOBIDE . . . *(Buruba jasorik, buru-makalkerijaz lotsa bař'litsun.)* — ¡Onintze! ¡Euzkotařaren bixitza

aberijarena don...; aberijarena don aren odol gusti osua! ¡Aberijak deskala, berari emon biar! eta ¡aintzaz, ziñez!... ¡Gerturik nayagon!... Eta ¿zer don, ba, nire bixitz arol au, axe-izpitxubak bakarik iraso au, azal tximurtsubak bakarik ali - daun abe idor arak-jotako au?... Adin... etorkixunak beingo baten eromatar gorotogarijok Irnio -ganera ba'layekarnaz... geure gudarijak gusti-gustijak il ixango zonazan noski... Baña ¿emakume - neskatileak? Eta ¿eu, Onintze enetxu ori? ¿Zer ixango ete-layitzaken eugaz, azan eder oregaz, goitzaliaren arotasuna ixan aikian oregaz?...
*(Begijak gar gaiztoz ixijoturik, zutunik eta azagea axian darabilala:)* ¡A! ¡neuk baldin ba'nayekin..., neuk susmetan baldin ba'nayekin!...

ONINTZE. . . . *(Buruba arokiro jasorik eta bulara eskumaz ikurtzetan:)*—¡Jo! ¡jo, beintzat!

LEKOBIDE . . . *(Mosubijaurik alabasuaren kemen otzaz:)*—¡Neure odoletikua az! ¡Enda zinduaren sein zindua az, beintzat! ¡O! ¡Eure begijok Lekobide'ren alabasua eztonala egundo eromatar gorotogarijaren jopu-neskamia ixango yiñostane!... ¡Ator neure besuetara...; ez baña, olantxe begizten itxi eidan!... ¡Eguzkija, itxaso-altzotik urtenda, urezko uledija zabukatzen yonanian, ezton eu baño ederagua, ¡eu, bekoki gori oregaz, aro-atz oregaz, suzko begizkune oregaz!...

ONINTZE. . . . *(Bulařan eskutauta eukan aiztua aterarik:)*

*(Edeskuna.)*

—¿Zarale'tzaz ez-ete-zara gomutetan, atona? ¿Zarale alabasuatzaz ez-ete zara gomutetan?... Ama batexek bijok sabel batexen sořtu genduzan. Odol batexe bijoen zanetan dabil... Bein ogenak areyuari ukañi eutsan; eta buruzagi eřomatařak bere begijai buruba eratsi eutsen... Ikutu gura ixan eban...; baña Zarale'k aiztuaz bijotza edegi egin eban; eta garbi-garbija, utz-utza Goguen eřira egaztu zan... ¡Auxe dozu, ařona, Zarale'ren aiztua! Zeure eskumiok neurion imiñi eustan; eta bein Zarale'ren garbitasuna jabon ba-eban, eztau, ziñez, atzera-egingo, aldija baldin ba'letoř, Zarale'ren aizpa zorigaiztunari eskař beraxe ukatzeko. *(Jaboten dau.)*

LEKOBIDE . . . . *(Lařiturik, eta alařen eta bijotz-asiařen negařez.)* —¡Aulantxe, abendearen eta odolaren ařotasuna, ikusi ta geldu gura aut! *(Laztantzen dau samuřkiro, eta bijotz-juaz alabasuarekin txabolatzařan sařtzen da, besua Onintze'ren lepo-ganian irasoten. Artzañoratzařa, be, euren ostez bařura sařtzen da.)*

## II ANTZEŔKIJA

USUNE *bakarik.*

USUNE. . . . . —¡Au baretasun aundija! ¡Au aldi ixila! ¡Mate-dodanaren gomuta-irudijak bakarik nire bijotz jausi au asaltzen dau; baña berak mate daunaren ola usaintsuba dakustala, nire indar makaldubak sendatu ta baretuten dira!...

*(Lenengo eleskitiko gomuta-gaya.)*

¡Neure etorkixuna beti beratzaz oldoztia! ¡Lekurik-leku irudimenaz ibiltia! Begijak -negar ta bijotza-lari aran-ibarak ziarkatzia! ¡Arkatxik-arkaitz, orein bildur ixu-samara, juan-etortia! ¡Beti gixoztietatik igeska ta beti gixoztiak igestaldurik!

## III ANTZEŔKIJA

USUNE *eta* ONINTZE

ONINTZE. . . . *(Txabola-atetik so-egiten daula.)*— ¡Soka daguanaren atza biguna entzun edo-neban, ba! *(Aurera dagijala.)* ¡A! Usune don...

USUNE. . . . —¡O! Onintze don... ¡Agur neskatila zoruntsu ori!

ONINTZE. . . . —Ez, ba, ni zoruntsuba esan; zorigatxa nire ixaŕa don-eta.

USUNE. . . . . —Ezton euria ni joputzen nayonanari egundo baŕdinduko...

ONINTZE. . . . —Euk eztakin, ez; euk ezin daiken, ez, uleŕtu norañokua dan nire zorigatxa.

USUNE. . . . . —Ezta euk susmau nire laŕijaren soŕkun egija...

*(Bikotxa)*

| ONINTZE | USUNE |
|---|---|
| *(Eskuz aŕtuta.)* | |
| Ni, ba, eŕuki natxakin,<br>ta Urtzi'k emongo al dausna<br>nik bixi nonan aŕtian<br>etxaukakedan zoruna. | ¡Urtzi! ¡Eŕuki zakijo!<br>ta neuri emon bijotza<br>bidiaz jaŕaitutzeko<br>dan gogoŕa ta mingotza. |
| *(Banatuta.)* | |
| (Itxaroko ba'litz bera<br>Laŕtaun bulaŕdetsubagaz;<br>danakaz zindua bedi,<br>zinduagoa beragaz!) | (Laŕtaun liranak esanda<br>itz bigunik entzun ba-dau,<br>maŕe dodanaz batu bei,<br>eta itxungi nadin nerau!) |
| *(Eskuz baŕiro aŕtuta.)* | |
| Gauŕ alpeŕik ezkonaz geu<br>zorigatxak emen batu...<br>nire ixaŕa itxungi don-ta,<br>zeuk, Urtzi, aŕen, zorundu! | Emen toki itxaltsu ontan...<br>ta moltsuan zorigatxaz...<br>beŕpiztu yatan bijotza<br>aizkidasunan beruaz! |

ONINTZE. . . . —Gaŕa-donan zoruna txastauko don. Bai, nik abintzen dausnat; nik aiztizten dausnat. ¡Nik, baña... gentzaldi betikoŕan bakaŕik edo-yariskenat!

USUNE. . . . . —Ni, bai, oldasau nonala, Onintze aizkide ori; baña, euk ibazi donan zorunaren kaltez, ezpeidan Gogo Andijak nire ametsa bete.

ONINTZE. . . . —¡Ai! ene Usune!... Zuriīuta nayagon neure zoruna zorigatxak berberak jaboten yonala, ta gogo onaz neure etořkixun au ařtzen yonat...

Baña itxi biař aut... neure begira edo -yagonan aīona agurea, eta artega noski, zaindu biař yonat bere zorija neure zorija don...

¡Neure adizkide lařī iīuna Urtzi'k jabon beyagin!

USUNE. . . . . —¡Urtzi'k berak gaizka betikořa bemosna!

*(Aldentzen dira: Onintze txabolatzařera dua. Usune, bařiz, eskeřaldez.)*

## IV ANTZEŘKIJA

LAŘTAUN *bakařik*

*(Gero agureak ondotik astiro ta ixīīik urteten dira, eta amilbarura oztezka igoten.)*

LAŘTAUN . . . —Ortzia argi-barik dago, oskoři-barik dago...; luřa bedař-barik, lore-barik, usain -barik...; eta guda-gixonaren bijotza iīun -itun, oyan sakaildubak lez.

¿Bere abendaide zindo eřutsu gustijak ez-ete-dabe, ba, maīetzat eta itxarotzat

ařtu? ¿Ez-ete-dau, ba, Onintze edeřak be ařtu?...

Poza bere ařpegitik aspaldijon igesi da eta bijotz idořari berua ukatzen dautso. ¡Bere espan igořak eztauz iřibařiak igitzen! Abeřtzaletasunak bakařik begijai noxian-bein bixitz-izpijak demotsoez, baña bixitz-izpi igeskořak, itxungiřako sutzařeko eřauts otzetik noxian-bein urteten diran txinpart ilizkaen kidiak...

Eta, nik eztakit, ba, meni-iragaři onek zorigaitz iřunen bat igaři eragiřen daust, Iřnio'ko durundijak gurenda-abestijak beřesan dabezan ondoren...

*(Antzeztoki - atzaldetik agura - taldiak urteten dira.)*

Ořiek, agura-talde ořiek, oyařbidez-ziař ixiltxu digozan agura ořiek, ¿zer gura ete -dabe? ¿zeren bila ete-digoz? *(Agureak ařkaltz-ganez igaroten ikusten dira.)* ¡Ai! ¡Bijotz au lařijak jo ta ařtu daust!... Eta Lekobide agurea ta Onintze ortze-zatija, ¿non ostenduten ete-dira? *(Artegatuten asten da.)* Txabolatzařan baldin ezpa-dagoz, gibel-atez begikatu edo-dira nai-ta-ez... Eta Lekobide aldendu baldin ba-da, alabasua aren ostez juan edo-da, jorañez ařonaren oñatzai soka... Ezta-baida gogoř samin onetatik urten biařa dot...

*(Txabolatzařa-bařu sařtzen da, eta lasteřtxe urteten da arintxu ta artegatsu. Bařuban Lekobide*

*ta Onintze-bila dabilan-artian, ereskintzeak igoten yakozan artegatasun-maleak dikurtz.)*

¡Au zoritxara! ¡Eurok, be, juan dira!... ¿Nora, baña? ¡Bai-yatorku, ziñez, ganera jazokun gaitzen bat!

*(Arnasa-oska gudarijakana arin-dagi.)*

## V ANTZERKIJA

LEKOBIDE, *agureak eta eromatarak.*

---

*Agureak gudaroste bijak banatzen dauzan latseko amilburura elduten diranian, aureko aldian eromatar-oste asko, buruzagijak buru dabezala, agertzen dira burdiñez burutik biatzetara jantzirik eta buruban egaki eder margodunak daukezala. Euron artian batzuk ikurtiñak eta aranodun gudeuna daukez; eta buruzagi batek ikurin zurijaz eskuban, elestatzeko aurera-dagi. Aureko aldetik, be, Lekobide'k, agura-taldiarekin, aurera-dagi; eta etsai gokartu ta andustetsubai zuzendurik, astiro, urtiak eta auniaren, baña abots bete argijaz, diñotsoe:*

LEKOBIDE. —Tibertar oyek: entzun ta aditu: euzko-erijak
Entzun dau zubek esan dozuben meni-gentza-itza:
Batzar nausijak aztertu dau, ta bidalduten gauz
Agura danok, iragarteko, ezetz diñola!
Joputasuna baño nayago gudea daula!

---

Esan agurok, kalte-egiteko gauzez garanok,
Pozik burubak erail doguzala, gudarijak
Astiruago gudakeari ekin dayentzat;
Bafa erijotza dogulako gozo-biguna
Ondorenguak aspeftuteko daukaguzala.

---

Esan, bai, esan, aguren ostez emakumiak
*(Iguin-igikuna ta gafaxijak efomatafen aftian.)*
Ta emakumien ostez mutiko-neskatuak
Danak pozafen aftuko dabela erijotza,
Danak pozafen burubak erailgo dabezala,
Etsai efomatafen jopu-ixan baño aufeko.

---

Ta sakaildubaren sakaildubaz gudari danok
Ilgo ba'lira, ta zubek bixi... Roma'ri esan
Gudaka ainbestez, odol ainbestez bai-dabezala
Afkaitz idofok jaubetu; bafa eurotan bere
Bixidun-ordez gorputz ilotzak, ¡¡ifleri otza!!

. . . . . . . . . . . . . . .

*(Ixilunetxuba; ta gero belaun eskef bilotsa lufian imuñirik, azogea goyan darabifala, sendo-gogofago ite-dagi ufengo* Biraba:)

¡Guda-gudea afotzari!
¡Ta gofoto utza Roma'ri!
¡Gogo Zuzen! ¡Zeuk gaiztetsi
Gentza nai leukena autetsi!
¡Ifundijetan gogo a
Betiko bebil ona-ara!

---

¡Aiztu bedi bere ixena
Dilan lez uda-lañua!
¡Ospa-aintzea eresteko
Oleŕkaririk ezpeuko!

*(Oyu zoli zoŕotza dagi, ta azagea gudarozte etsayaganantz jauŕtitzen dau. Ikuŕtz onegaz Iŕnio'ko gustijak iŕintz gogoŕak sutsu-sutsu dagijez, eta gudarijak mendiz beira duaz agura-talde nausija daguanera. Oyu, iŕintz eta juan-etoŕi onen aldijan Lekobide amilburura eldu da, atzera-dagiz begijak, eta lañotaŕtian besuak luzatzen gorputz zurija dakus antzeztoki-atzaldian dagirkena.)*

LEKOBIDE . . . *(Ilun-ilun, ikaskantza dakusala):* ¡¡¡Onintze!!! *(Eta alegin nagosi ta mingotza egiñik eta ortzera begijak jasorik astiro-astiro):* ¡Garbitasunaren Gogo zainztale ori! ¡Zaindu eikezu!

*(Gero aŕkaitz-ostez digaro, ta alditxu begikatzen da, ta amilburutik bera buruba jauŕtitzen dau. Iguin eta aŕikun-oyuba euzkotaŕen aldetik; eta eŕomataŕenetik batez ixu-ikara-oyuba. Eŕomataŕak batetik bestera ta alde-egilen asten dira. Ilun-nabaŕa da.)*

## VI ANTZEŔKIJA

BERBERAK *(Lekobide-barik)*, OTSOAL *eta eŕilaldia.)*

*Amilondua Lekobide'ren gorputzak jo daunian, Otsoal amilburu bertantxe dagir, eta azkona darabilala, sendo ta gogoŕ abesten daulenguaren* Biraba *esaten:*

OTSOAL . . . . ¡Guda-gudea aŕotzari!
¡Ta goŕoto utza Roma'ri!
¡Gogo Zuzen! ¡Zeuk gaiztetsi!
¡Gentza nai leukena autetsi!

¡Iľundijetan gogo a
Betiko bebil ona-ara!

---

¡Aiztu bedi bere ixena
Dilan lez uda-lañua!
¡Ospa-aintzea eresteko
Oleŕkaririk ezpeuko!

*(Azkenengo itza esanda, azkona iraizten dau, ta lengua lez, arkaitz garaya-ostez digaro,ta buruba amiľondora jauŕtitzen dau. Baľa be amilburuko leku bat-eta-bestetik agurarik askok burubak amiľondora jauŕtitzen dabez.*

*Eŕomataŕak, geldu ta ixuturik, alde-dagije.*

*Ixubaŕen ixiľune luzia.)*

## VII ANTZEŔKIJA

LAŔTAUN, *gudarijak, eŕija, emakumiak eta mutiko-neskatuak; gero* USUNE.

---

*Eskeŕ-aldetik lau gudari biñaka saŕten dira, Lekobide ta Onintze'ren gorpubak eskoge banatan ekaŕten; eskuma-aldetik Laŕtaun laŕi-oska datoŕ, eta antzeztoki-erdijan dagola, gudarijak luŕa-gañian jaŕtzen dabez eskogiak.*

LAŔTAUN . . . —*(Ala-oyu zolijaz, gorpubak ezauturik.)* ¡Ai ene! ¡Eurak dira! *(Etsi-deika.)* ¡¡Onintze!! ¡¡Lekobide!! ¡Au dan zori samiña! ¡Buru-eskaña

bete da!... ¡Gaurko galtzaya euzkotarentzako!...

¿Zer da, ba, geuri begira dagokuna zorigaitz-itxasua edanaren edanaz legortzeko?... *(Buru-jaube.)* Emen, marerik marienen gorpu-aurian Aberijari zin-desatsot geure agurarik zinduena ta geure neskatilarik garbijena, neure bijotzak laztana, neure burubak aiztu-eziña, eromataren kaltez neure izkilubokaz asperfuko dodazala!

(Usune *ule-lasai mañoratu da, ta belaunbikotzen da beso-bata ta otoi-antz; baña Lartaun'en azken itzaz aldigaltzoz jausten da.)*

*(Burudunago.)* ¡Oin, bijotza-jaso, ildakua azkenengo zor mingotza ordaindu dayoegun! *(Eskogiak ekari dabezanai jaraitzeko atza eginik, ixiltxu ta ilun dua.)*

## VIII ETA AZKENENGO ANTZERKIJA

BERBERAK *(Lartaun-barik)*, OLERKARI *eta taldiak.*

GIXONEN TALDIA. *(Lenengo eleskiriko gomuta-gaya)*

¡Eguzkija il da!
¡Eguzkija il da!
¡Ilunak Eguzkija
Il Eguzkija!

OLERKARI . . . . *(Aurera-dagi, eta tanbolinaz erijotz-otsa joten, abesten dau):*

I

¡Mendiko neskatil zuri oi!
¡Ule azkatuba axiari!
¡Espanetako iŕibaŕiak
Bein da betiko idoŕtu exuz!
¡Erijotz-loreak, bai, batu,
Eta iłobijetan zabaldu!
¡Negaŕ! ¡Bai, negaŕ! ¡Il dira-ta
Guraso małe ta laztanak!

*(Uŕengo neuŕtizkija astian ondotik eskeŕ-aldetik eskuma-aldera gizon bik astiro, baña lotuteka, eskogia darue).*

II

¡Buru zuri arek zutunik
Ekaitz eta galtzorijetan
Ogoño * tontoŕa irudijen
Itxaso-uintzaŕai jaŕkitzen!
¡Gatxari jauŕkitzan betiko
Estozubez, ez, ikusiko!
¡Eztaŕijak ziran zolijak!
¡Ai! ¡Ixildu dira betiko!

III

¿Nun dau **Lekobide** andija?
¿Nun Utxin zuŕa? ¿Nun Lakazaŕ?
¿Nun Otsoal sutsuba? ¿Aztain nun?
¿Nun Beltzun eta beste arek?

* Bizkai-itxaseŕtzeko mutuŕ garaya.

Gudari nausi zuŕ-zuŕak
Gudarijen aŕtian ziran,
Mendirik nausi diran lez
Aizkoŕi * ta Iŕnio mendijak.

*(Uŕengo neuŕtizkija astian, gixon bik, len lez, astiro, baña lotuteka, beste eskoge bat agura-gorpuduna darue.)*

IV

Euraen sengijen oñatzak
¿Nok orain zuzendu eingo dauz
Aintzearen bidez? ¿Nok orain?
¿Gasteren azaŕkuntzea
Nok auŕerantzian lotuko?
¿Nok bijotz-jausija sutauko?
¿Nok eŕijon etoŕkixuna
Esku senduaz zuzenduko?

V

¡Negaŕ! ¡Bai, negaŕ gudarijok!
¡Ez, baña, negaŕaz asetu!
¡Il dira! Baña, ¡Abeŕijaŕen!
¡Il! ¡Tibertaŕai goŕotaŕen!
¡¡Zin esan dagigun geuk bere,
Bai Aberijaŕen ilteko!!
¡¡Zin-esan daigun obijetak
Etsai-odolez ezkotzeko!!

*(Uŕengo neuŕtizkija astian, gixon bik astiro, baña lotuteka, beste eskoge bat agura-gorpuduna darue.)*

---

* Gipuzkoa'ko mendi garai-garayu.

## VI

Zubek, baña, geure asaben gogo deun orijek,
Etoŕi gugana gabeko iḻunaz poztuteko
Sengijen bijotz iḻunak zuben autu gozuaz.
Iḻate baten ostez beste Ilatia datoŕke,
Eta gauŕko Eguzkijaren ostez bigaŕkua:
Gauŕko gixaldiak bigaŕkua atzetik daukake;
Baña Abeŕijaŕen zubek egindako *eskañaz* *
¡Ezta, ziñez, aiztuko euzko-gastia betiko!
¡¡Zuben ixenak ixango dira geu-goguetan
Gabeko ixaŕak zurbil bigunak ortze zabalan!!

. . . . . . . . . . . . . . . . .

# AZKENA

*(Gaba da, iḻuna ta iḻargi-bakua; Ixaŕ batzuk, baña, izpi-dagije.)*

TALDE NAUSIJA.—*(Gusti-gustijak:)* ¡Eguzkija il da!
¡Eguzkija il da!
¡Iḻunak Eguzkija
Il Eguzkija!

---

* Euzkadi'ko agureak abeŕijaŕen baṟa agin aretan egindako buru-eskain gaitz ixugaŕi onek eŕomataŕen gudaroztiak ixutau edo -ebazan, aldendu-eragin, eta iñoiz ludiko abendarik bat-ez-batek bezau eztaun eŕija lasai ta moltsoge itxi-erazo.

Diñogun egi au argi ta garbi darakus gauŕaŕte, gixaldi ta eungijak igazijaŕen, Euzkera zaŕ urtetsuba, garbi, kutsuge ta erderakadatzaz utz irautiak.

¡Asaben buru-eskain au etoŕteko gixalde euzkotaŕak eredutzat aŕtu begikie, eta euzkera zaŕ edeŕaz egiṟia ta ele poliṟa gurendu ta zabaldutia abeŕijarentzat gairik nausijena dala gomutau ta oldoztu!

Ilate baten ostez beste Ilatia datorke,
Eta gaurko Eguzkijaren ostez bigarkua:
Gaurko gixaldiak bigarkua atzetik daukake;
Baña Aberijaren zubek egindako eskañaz
¡Ezta, ziñez, aiztuko euzko-gastia betiko!
¡¡Zuben ixenak ixango dira geu-goguetan
Gabeko ixarak zurbil bigunak ortze zabalan!!

(ANTZEZTOKI-EUNA BERATUTEN DA.)

# Itz bařijak ala atzalgařijak

| ITZAK | SOŘKUNA | IKUŘA |
|---|---|---|
| Agesto | aga+esto | estacada |
| agin | | circunstancia |
| agintzaldi | agintze+aldi | imperio (tiempo) |
| agimendun | agimen+dun | emperador |
| axu | aizu | bayetz, lakemena |
| adeitsu | | cortés |
| adorekatu | adore+katu | adoria galdu |
| atzindu | atz+indu | borrar |
| atxin | aitzin | contra |
| alabaso | | iloba-emia |
| alapide | (Laburdi-itza) | jaki-edaki-gayak |
| alge | al+ge | al-bako |
| alege | alai+ge | triste |
| alikatura | (itz zařa) | janarija |
| ali-ixan | ( » ) | jakija emon |
| andustetsu | andi+ustetsu | vanidoso |
| antzaldu | antz+aldu | simbolizar |
| antzeřki | antzeřti+ki | escena |
| antzeřti | antz+eřti | arte dramático |
| antzezki | antzeztu+ki | escena, cuadro |
| antzezkixun | antzeztu+kixun | representación |
| antzeztoki | antzeztu+toki | lugar escénico |
| antzeznotin | antzeztu+notin | personaje que representa |
| anei | an+ei | mila |
| ařotz | (itz zařa) | eřbesteko |
| ařikun | ařitu+kun | consternación |
| asaldau | (itz zařa) | artegatu; conturbar |
| askitz | as+k+itz | tradición |
| asekaitz | ase+gaitz | insaciable |
| asele | as+ele | leyenda |
| aspeřtu | (itz zařa) | bengau |
| azaga | ( » ) | jabalina |

| ITZAK | SOṘKUNA | IKUṘA |
|---|---|---|
| abetzoli | abes+zoli (Etxeita'taŕ G.) | tenor |
| abenda | aba+enda | raza |
| abendakide<br>abendaide | abenda+kide | abenda-lagun |
| abeŕtzale | aber̄i+zale | aber̄i-mal̄ale |
| aber̄i | aba+eŕi | asabaen eŕija |
| abeskor̄i | abes+gor̄i (E.'taŕ G.) | contralto |
| abeskoren | abes+goren ( » ) | soprano |
| abeski | abesti+ki | apaldi, estrofa |
| abestu | abes+tu | kantau |
| abesti | abes+ti | cántico |
| abesper̄i | abes+ber̄i (E.'taŕ G.) | baritono |
| abesperen | abes+beren ( » ) | bajo: voz baja |
| abots | abo+ots | voz |
| aboskera | abots+k+era | tono |
| abind̄u | agind̄u'tik | bayetza-emon |
| | | |
| Galtzakunde | galtze+kunde | ṣakal̄a; destrucción |
| galtzori | galdu+zori | galduteko zori edo aŕisku |
| gaizka | gaitz+ka | salud; salvación |
| gaizkatu | gaitz+katu | gatxetik atera |
| gaiztetsi | gaizto+etsi | madarikatu |
| geldu | geldi'tik (Arana-Goiri) | admirar |
| geltsu | gel (du)+tsu | eskutapentsu; misterioso |
| gentza | (Arana-Goiri) | bake |
| geznari | gezna+ari | mandatari, mezulari |
| gezi | (itz zaŕa) | dardo |
| gokaŕtu | gogo+k+aŕtu | absorto |
| gotil̄un | gogo+ilun | melancolia |
| gudaka | guda+ka | batalla |
| gudaldi | guda+aldi | campaña |
| gudarozte | gudari+ozte | ejército |
| gudari | guda+ari | soldado |
| guda-sein | guda+sein | heraldo |
| gudeun | guda+eun | bandera de guerra |

| ITZAK | SOŔRUNA | IKUŔA |
|---|---|---|
| gurenda | (itz zaŕa) | irabazketa |
| gurutzaldu | gurutz+aldu | gurutzan josi |
| gixakera | gixa+k+era | aspecto, actitud |
| gixozte | gixa+ozte | muchedumbre |
| Kemen | | valor |
| kutsuge | | incontaminado |
| kistaŕdi | kistaŕ+di | kistaŕ-batza; Cristianismo |
| Janzkidun | Jantzi+ki+dun | soñekodun |
| jabon | (itz zaŕa) | gorde |
| Jaungotzako | Jaun-goiko+tzako | Jaun-goiko-guzuŕ |
| jaungixun | Jaun-goiko+ixun | Jaun-goiko-guzuŕ |
| jorain | | afán, avidez |
| jori | | ugari |
| jopu | (itz zaŕa) | moŕoi |
| joputasun | jopu+tasun | esclavitud |
| joputu | jopu+tu | tiranizar, reducir a servidumbre. |
| jupa | Laburdi-itza | poz-oyuba |
| Autaŕki | autaŕtu+ki | voto |
| autukide | autu+kide | autu edo jardun-lagun |
| auna | | cansancio |
| auŕkots | auŕe+k+ots | auŕeko ots edo soñu; preludio. |
| Aintza | ain+tza (A.-G.) | gloria |
| aintzargi | aintza+argi | nimbo, aureola de gloria |
| aizto | aitz+to (itz zaŕa) | ganibeta; cuchillo |
| aizti | aitz+ti? ( » ) | adivino |
| aiztitz | aizti+itz | augurio |
| aiztiztu | aiztitz+tu | gerokua igaŕi; augurar |
| Egaki | ego+ki | luma |
| egubantz | egun+antz (itz zaŕa) | egun-sentija |
| egiŀaŕ | Aigito'taŕ | egipcio |
| edeskun | edesi+kun | narración |
| elaztu | | comentar hablando |

| ITZAK | SOŔKUNA | IKUŔA |
|---|---|---|
| ele | (itz zaŕa) | berbeta |
| eleski | elesi+ki | descripción; trozo descriptivo. |
| elezta | | autu, berbaldija |
| erail | era+il | il, il-erazo |
| eresalgun | eresaldu+gun | música |
| eresaldu | eresi+aldu | poner en música |
| ereskin | eres+kin | instrumento músico |
| ereskintza | ereskin+tza | banda, orquesta |
| ereseŕki | eresi+eŕki | himno |
| eresi | (itz zaŕa) | cántico |
| eŕkalde | eŕi+k+alde | región |
| eŕki | eŕi+ki | eŕi-zati; provincia |
| eŕu | | vigor |
| esakun | esan+kun | recitado |
| eskain | eskaniˈtik | sacrificio |
| eskoge | esku+oge | parihuelas |
| eskin | eres+kin | instrumento músico |
| esneuŕkin | eresi+neuŕkin | compás |
| ezaukaitz | ezaun+gaitz | inconoscible, inescrutable |
| ezeskoŕ | ezetsi+koŕ | despreciativo |
| ezkaitz / ezikaitz | ezi+gaitz | indomable |
| Donauskoŕ | done+autsi+koŕ | sacrílego |
| Eungi | eun+ki | siglo |
| euzkeralgun | euzkeraldu+gun | version euzkérica |
| Ogen | (itz zaŕa) | engaño |
| ogen-egin | | atzipetu, engañau |
| otoi | | aŕen; oración |
| otsandi | | murmurante |
| oleŕkari (1) | oleŕki+k+ari | bardo, poeta |
| oleŕki | ole+eŕti+ki | trozo poético; poema |
| oleŕti | ole+eŕti | poesía (arte) |

(1) *Oleskari* da poeta lírico o cantor.

| ITZAK | SOṘKUNA | IKUṘA |
|---|---|---|
| oldaŕ | | acometividad, carácter |
| oldasau | olde+asetu | consolar |
| oldoztu | (itz zaŕa) | pentsau |
| oldoztun | oldoztu+tun | pensativo |
| onetsi | on+etsi | ontzat aŕtu, bedeinkatu |
| onu | (itz zaŕa) | aolku, kontseku |
| oresi | ol+esi; ole+eresi | poesia lírica |
| oresidun | oresi+dun | lírico |
| ortzaizki | ortze+izki edo argi | luz solar |
| ortze | (itz zaŕa) | zeru |
| oro | ( » ) | gusti |
| oŕkaŕte | oŕ+k+aŕte | pasu |
| oskoŕi | ortze+goŕi (itz zaŕa) | zeru goŕija |
| oskin | ots+kin | tambor |
| Lats | (itz zaŕa) | eŕeka |
| leŕtzoko | leŕo+zoko | ángulo |
| loki | lotu+ki | txikot, cuerda |
| luŕaso | luŕ+a+so (*itxaso* lez) | continente |
| Naŕoskin | naŕu+ots+kin | naŕuz egindako oskiña; pandero |
| neuŕkin | neuŕi+kin | metro |
| neuŕtizki | neuŕtitz+ki | estrofa |
| Oinka | oinkari ta oinkariŕu'tik | dantza |
| oinketa | oinka+keta | dantzaketa |
| Ukañi | ukain+i (*eskañi* lez) | emon |
| untzau | untze+au | untzez josi |
| Urtzi | (itz zaŕa) | Ĵaun-goikua |
| Uzkuŕtz | Urtzi+guŕ+tz | eŕligiño |
| Sakail | | desolación |
| sakaildu | | desolar |
| sakune | sakon+une | foso |
| saŕkalde | saŕtu+k+alde | eguzkija saŕtzen dan aldia; ilalde, be, deretxa |

| ITZAK | SOŘKUNA | IKUŘA |
|---|---|---|
| sengi | sen+gi | seme-alabeak |
| sendi | sen+di | familia |
| soka | (Aune-itza) | begizka |
| so-egin | ( » ) | begiz jo |
| sořkun | sořtu+kun | origen |
| sutzař | su+tzař | su andi |
| Zaindoki | zaindu+oki | refugio |
| zeřdena | | apuesto |
| zorun | zori+on | zorijon |
| zorigaiztun | zori+gaitz+dun | desventurado |
| ziñaltzale | zinaldu+tzale | lekuko; testigo |
| Uin | (Laburdi-itza) | olatu, bage |
| uintzař | uin+tzař | olatu, bage andi |
| Igazi | | igaro |
| igestaldu | igesi+t+aldu | igesi-erazo |
| igikun | igitu+kun | movimiento |
| ikuřatz | ikuři+atz | signo |
| ikuřdi | ikuř+di | escudo |
| ikuřtzau | ikuřtz+au | señalar |
| ikuřin | ikuř+eun | bandera |
| ikuskantz | ikusi+k+antz | visión |
| ixontzidi | iz+ontzi+di | flota |
| ixilune | ixil+une | ixil-aldi |
| idatzi | iratzi'tik | eskribidu |
| idazkun | idatzi+kun | escrito |
| itz | | berba |
| iřundasun | iřun+dasun | *triste*tasun |
| Iltzař | ilargi+zařa | |
| Ilbaři | ilargi-baři | |
| Ilbete | ilargi+bete | ilargi osua |
| Ilazki | il(un)+izki edo argi | ilargi |
| ilundi | ilun+di | tiniebias |
| ilizka | | tenue |
| iñaka | | burla |

| ITZAK | SOŘKUNA | IKUŘA |
|---|---|---|
| rato | ira+ito | ito-erazo |
| irařkaldi | iraři+k+aldi | impresión, edición |
| irařkola | iraři+k+ola | imprenta |
| iraso | | apoyar, retener |
| iraizten | iraitzi+ten | botetan |
| irozo | | eutsi; sostener |
| irukoitz | iru+koitz | tríptico |
| iřaida | | dantza |
| izkilau | izkilo+au | armau |
| izkilo | (itz zařak) | arma |
| izkilos | | |
| izta | | berna, pierna |
| iztazuř | izta+azuř | tibia |
| iztabo | iz+t+abo | desembocadura |
| izto | aitz+to | flecha |
| izpař | itz+bař i | bař i, albista |
| izpide | | razón |
| ibazi | | merecer |
| Bakaldun | bat+kal+dun | cřege |
| begikatu | begi+katu | begijetatik jun |
| bedegař | bede (=bat)+gař | berarizko |
| beřesan | beř+esan | bařiro esan |
| beřpiztu | beř+biztu | bařiro biztu |
| bezau | bez+au | betu |
| beztu | bez+tu | jatsi |
| bultsu | bulzu añařetik | uřutsu edo ixurutsu; inquieto |
| burestun | buru+estun | koroi |
| burestundau | burestun+tau | burestuna imini |
| buruzagi | | caudillo |
| buřustu | | asaltar |
| Margodura | margotu+dura | pintura, tonalidad |
| meni | (itz zařa) | bake-aldi; tregua |
| moltsoge | moltso+ge | moltso-bako |
| mosubijau | mosu+bijau | transformar el rostro |

EUZKO
DEYA

# IV.